

## **ZUMAIAKO UDALA.-**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA.-**

### **2005EKO AZAROAREN HOGEITA LAUAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.**

Zumaiako hirian, bi mila eta bosteko azaroaren hogeita lauan, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ohiko batzarra egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.  
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.  
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.  
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.  
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

### **1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA: (2005.09.29).-**

Alkate-Lehendakariak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenerako aurkeztutako aktari korporazioko kideren batek zuzenketarik egin nahi dion galdetu du.

Ondoren, 2006rako ordenantza fiskalei buruzko eztabaidaren akta berrikusi egin behar dela adierazi du. Estilo-ukituak behar ditu.

Asier Esnal iritzi berekoa da eta behar hori adierazten duten adibideak eman ditu.

Idazkariak dio euskaratik gaztelaniarako itzulpenaren akatsak direla.

Alkateak dio ez dagoela ados eta euskarazko eta gaztelaniazko testuak berrikusi egin behar direla.

Bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dute 2005-09-29ko akta, adierazitako salbuespenak aintzat hartuta.

## **2.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.**

Adierazpena irakurri da.

### **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urratze onartezina da eta, seguruenik, emakumeek bizitzaren hainbat esparrutan jasaten duten diskriminazioaren adibiderik larriena.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eta diskriminazioaren arazoa egiturazko fenomeno bat da, dimentsio anitzekoa, eta hori desagerrarazteko botere publiko guztien eta gizarte osoaren inplikazioa behar da. Gainera, lan koordinatua egin behar da esparru askotan: legegintzan, ikerkuntzan, sentsibilizazioan, prebentzioan eta biktimen laguntzan eta babesean.

Udalak badaki tokiko administrazioaren zeregina funtsezkoa dela emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, eta, horregatik, azaroaren 25ean emakumeekiko indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta:

- **KONPROMISOA HARTZEN DU** sexuen arteko berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako udal-politika aktiboa garatzeko, bere eskumenen esparruan eta indarrean dagoen legeria aplikatuz.

- **ZUMAIAR GUZTIAK ANIMATZEN DITU** indarkeria horren aurkako jarrera aktiboa hartzera eta azaroaren 25ean egingo diren ekitaldietan parte hartzera.

Gizarte Zerbitzuen batzordeko lehendakariak iragarri du abenduaren 6rako eta 7rako erakusketa bat antolatu dela Oxforden.

IZUSTARRIko bozeramaileak, adierazpen instituzionalaren garrantzia aintzat hartuta, Irungo eta Hondarribiko udalei akordio honen egiaztagiria bidaltzea proposatu du, ez baitute onartutakoa ontzat hartzen.

Alkateak erantzun du adierazpen instituzionala onartzea dela proposamena, eta Irungo eta Hondarribiko udalek jakingo dutela zertan dabilzan.

Bozketa planteatuta, Udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bertaratutako hamaika kideek aho batez **ONARTU DUTE**:

*Emakumeen aurkako indarkeria adierazpen instituzionala onartzea.*

## **3.- ZUMAIAKO UDAL-HILERRIKO PANTEOIAK EGUNERATZEKO DOKUMENTUA BEHIN BETIKO ONARTZEA ETA ALEGAZIOAK EBAZTEA, BIDEZKOA BADA.**

Otsailaren 24ko Udalbatzak Zumaiako hilerrietako panteoiak eguneratzeko dokumentuari hasierako onarpena eman zion.

Dokumentu hori jendaurrean jarri eta iragarkiak jarri ziren GAOn, EHAAn eta BOEn.

Bi alegazio aurkeztu dira, garaiz eta behar bezala.

ALEGANTE ALEGATZAILEA	CONTENIDO DE LA ALEGACIÓN EDUKIA	PROPUESTA DE RESOLUCION ERABAKI PROPOSAMENA
<p>M<sup>a</sup> CARMEN CINCUNEGUI (2005-07-12)</p>	<p>Como representación del 50% de la titularidad del Panteón nº A-102, me dirijo a Vdes., para manifestarles que consideren el 50 % de dicho Panteón a nombre de la familia CINCUNEGUI-AMAS, que es como figura actualmente. Se propone nombrar a los efectos de la relación con el Ayuntamiento al alegante y como cotitulares al marido y al hermano.</p> <p><i>A-102 panteoiaren %50aren jabe gisa eskatzen du, panteoi horren %50 CINCUNEGUI-AMAS familiaren izenean jartzeko. Udal harremanetarako alegatzailea proposatzen da eta kotitular gisa bere senarra eta anaia.</i></p> <p>Habiendo dado traslado de la alegación al 50% restante del Panteon A-102 contestan: la conformidad a que el panteón figure a nombre de la familia CINCUNEGUI-AMAS, pero proponen a efectos de la relación con el Ayuntamiento que figure la hija mayor del matrimonio CINCUNEGUI-AMAS y en calidad de cotitulares el resto de los hijos.</p> <p><i>A-102 Panteoiaren beste %50ari alegazioaren berri jakinarazi ondoren zera erantzuten dute: ados panteoia CINCUNEGUI-AMAS familiaren izenean jartzeko, baina Udal harremanetarako CINCUNEGUI-AMAS matrimonioko seme alaba zaharrena jartzea proposatzen da eta kotitular gisa bizirik dauden gainerako seme alaba guztiak (solteroak hilik baitaude eta ondorengorik gabe).</i></p>	<p>Estudiadas ambas alegaciones y habiendo informado a la otra parte la propuesta de resolución, se propone: Mantener el 50% del Panteon A-102 a nombre de la familia CINCUNEGUI-AMAS con la siguiente representación: A los efectos de la relación con el Ayuntamiento figurará la hija mayor del matrimonio CINCUNEGUI-AMAS y en calidad de cotitulares el resto de los hijos.</p> <p><i>Udalak bi alegazioak aztertu ondoren eta beste alderdiari proposamenaren berri aurreratu ondoren erabaki du: A-102 panteoiaren %50-a CINCUNEGUI-AMAS familiaren izenean jartzea era honetan: Udal harremanetarako CINCUNEGUI-AMAS matrimonioko alaba zaharrena ipintzea eta kotitular gisa bizirik dauden gainerako seme alaba guztiak.</i></p>
<p>RUFINO CORTA ECHAVE (2005-07-22)</p>	<p>Manifiesta su disconformidad a que el Sr. Jose Corta Echave figure como titular del Panteón a los efectos de la relación con el Ayuntamiento. Se da traslado de la alegación a Jose Corta Echave y al resto de los interesados. No hay respuesta.</p> <p><i>Jose Corta Echave jauna, Corta familiaren panteoiaren titular izendatzearekiko ezadostasuna agertzen du.</i></p> <p><i>Jose Corta Echave eta gainerako interesatuei Rufino Cortaren alegazioa jakinarazten zaie.</i></p> <p><i>Erantzunik ez da izan.</i></p>	<p>La propuesta que eleva la comisión es desestimar la alegación presentada, por falta de motivación. <i>Batzordeak Udalbatza Osoari oharpena ez onartzeko irizpena egin dio, nahikoa arrazoituta ez dagoela-eta.</i></p>

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, Oikiako panteoi bat eguneratzea falta zaigu. Jabeekin harremanetan jarri ondoren, badirudi eguneratzea aurkeztuko dutela.

Azkenik, egindako eguneratzeen kopurua adierazi da:

Panteoien kopurua guztira: 300		Oharrak:
Arritokieta	234	
Oikia	46	
Artadi	20	
Eguneratutako panteoiak guztira: 296		
Arritokieta	231*	3 eguneratu gabe
Oikia	45*	Urtia-Berri eguneratzeke
Artadi	20	

Panteoien eguneratze-lana, panteoi bakoitzaren fitxa indibidualei buruzkoa, proiektzio bidez erakutsi da. Bertan, informazioa hau jasotzen da: panteoi bakoitzaren zenbakikuntza (kaleen izenak ezabatu egin dira), jabeak, jabeakideak, argazkia...

Bozketa planteatuta, Udaltzaria osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bertaratutako hamaika kideek aho batez ONARTU DUTE:

1.- Panteoien eguneratzearen dokumentua behin betiko onartzea, eta alegazioak ebatzea, akordioaren esposizio-atalaren proposamenari jarraituz, eta interesatuei jakinaraztea.

2.- Panteoiei buruzko hileta-eskubideak dituzten jabe guztiei dagokien titulua bidaltzea.

#### **4.- ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 1. SEKTOREKO (PUNTANUETA II) PLAN PARTZIALAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.**

Alkatetzako 2005-03-11ko 048/05 zenbakia duen Dekretuaren bidez, Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. sektoreko (Puntanueta II) Plan Partzialari hasierako onarpenera eman zitzaion. Plan hori Pagaegi, Errea eta Loinaz arkitektoek idatzi zuten eta ZUMAIA LANTZEN SAK sustatu.

Jendeari jakinarazteko izapideari ekin zitzaion. 2005-03-23an probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean iragarkia jarri zen, 2005-03-29an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu zen, eta, gainera, jabe bakoitzari jakinarazpen bana bidali zitzaion. Garaiz eta behar bezala ez da alegaziorik jaso.

Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Zuzendaritzak eta Kostetako Zuzendaritzak nahitaezko txostena igorri dute.

Udaleko txosten teknikoak hau dio:

**ZUMAIAKO UDALA**  
**HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA**  
**TXOSTEN TEKNIKOA, zk. 52/05**

**PROIEKTUA: ERAIKUNTZA:**

**PLANGINTZA:** PLAN PARTZIALA

**KOKAPENA: LURZATIA:** 1. SEKTOREA

**AREA:** PUNTANUETA II

**FASEA:** BEHIN-BEHINEKO ONARPENA

**ERAGILEA:** ZUMAIA LANTZEN SA

**TALDE EGILEA:** LUCIANO PAGAEGI BILBAO

**ONIRITZIAREN DATA:**

**SARRERA ERREGISTROKO DATA:** 05-11-21

**TXOSTENAREN DATA:** 05-11-21

**1.-AURREKARIAK/ANTECEDENTES.**

Ikus 1/05 txosten teknikoa, 2005eko otsailaren 14koa, hasierako onarpenerako dokumentuari buruzkoa.

Jendaurrean ikusgai egon den artean, ez da alegaziorik aurkeztu; Errepide Departamentuaren eta Kostetako Zuzendaritzaren nahitaezko txostena baino ez. Bitarte horretan, Zona Hezeen LPSa behin betiko onartu da, eta Narrondoko ibarra MA 2-1 gisa definitu eta Ingurumenaren Hobekuntza atalean erabilera-matrize bat jarri zaio.

ERREPIDEAK. Egoitza Plan Partzialaren eta Zumaiako Saihesbideko Sistema Orokorraren (634 EN) arteko mugako jarduerak koordinatzeko beharretik, ikusten da hiri-egituran zehar (Alai, 3. sektorea, Puntanueta I eta Puntanueta II) paisaia- eta soinu-pantailarena egingo duen ildo-bizkar begetala egin beharrak ildo-bizkar horren hegala Puntanueta IIren esparruan egitera behartu dituela Saihesbidearen Proiektua egin duten teknikariak, Egoitza Ordenazioaren asentu-plataformen eta saihesbidearen beraren ibilbidearen arteko altuera dela-eta. "Ordenazio estankorik" ez egiteko, hau da, bakoitzak bere esparruko arazoa konpondu eta inork nahi ez dituen eraginak sor ez daitezten (esate baterako, 12 metro arteko hormak), Errepide Departamentuko teknikariek bilerak egin ondoren, Sistema Orokorraren mugakidea den guneko Plana berrordenatzeari ekin zaio. Lurraren Legearen Planeamenduko Erregelamendua eta Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioak betez, Sistema Orokorreko Lanen Proiektu Teknikoaren beharrak bateragarriak izango dira.

Ordenazio horretatik, Baterako Gune Librean behar besteko azalera lortuko da, saihesbidearen ildo-bizkar begetalaren ezpondak babesteko.

KOSTAK. Kostetako Zuzendaritzaren txostenean, itsaso eta lehorraren arteko zonaren mugatzea eta hori babesteko zorgunea, planoak egiteko erabiliak, zuzendaritzaren jatorrizko planoak direla egiaztatu da, eta, beraz, ez da ulertzen alderdi hori. Hala ere, 100 metrora akotatu da eta 99 metroko interpretazioa izan zezakeen erpin bat (NO) 100 metrora konpondu da.

Aldi berean, egin beharreko legezko lagapenei dagokienez, Ordenantzetako 8. artikulua eta 4. eranskineko 2. eta 3. puntua konpondu dira.

Gainera, honako hauek ere sartu dira memorian: 22/88 Legea, kostei buruzkoa, betetzea, eta, bereziki, Lege horren 24., 25., 26., 27., 28., 29. eta 30. artikulua, eta Lege horren Erregelamendu Orokorreko 58. artikulua.

ZONA HEZEEN LPSa. MA 2-1 Narrondoko ibarra zonako erabilera-matrizearen analisiaren ondorioz, erabilera hauek ezarri dira:

-ERABILERA EGOKIAK. Paduren eta lohien kontserbazio aktiboa.

-ERABILERA ONARGARRIAK: Erabilera publiko estentsiboa (B1)  
Nekazaritza (1)  
Abeltzaintza (3)  
Baso-erabilera babestua (C.4.1)  
Azpiegiturak (A motako izaera ez-linealekoak eta hondakindegia eta  
zabortegiak izan ezik) D

ERABILERA DEBEKATUAK. Ehiza

Ordenazioan izandako aldaketa barruko bidea zuzentzea izan da: eraikuntzari hurbildu zaio eta ibarretik urrundu. Sektoreko zona berdeak (3.750 m<sup>2</sup>) zonako Ingurumenaren Hobekuntzarako izango dira, garraioen (D1) eta sareen (D3) azpiegitura baita, Narrondoko ibarreko zona hezeetako LPSko Lurrearen Antolamenduko Artezpideetako erabilera-matrizean definitutakoaren arabera.

Horrela, Plan Partzialak aprobetxamendu-intentsitateen ordenazio-irizpideei eusten die (250 etxebizitza), eta etxebizitza babestuak egiteko asmo argia du: babes ofizialeko 163 etxebizitza eta 87 etxebizitza tasatu. Horiek gorantz erregulatuko dira: babes ofizialeko 205 etxebizitza eta 45 etxebizitza tasatu, Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. aldaketa onartuko balitz, hots, babes ofizialeko etxebizitzak EU 12.1 Torreatatik 1. sektorerara, Puntanueta IIra, eramateari buruzkoa.

Planak 2150/18978 RPLSko 57. artikuluan eta ondorengoetan eskatutako dokumentu guztiak ditu, eta 43. artikuluko eta ondorengoetako helburu eta erabaki guztiak betetzeaz gain, 138. artikuluan arabera tramitatu denez, ondorioak ezarriko ditugu. Hona hemen:

### **3.-ONDORIOAK/CONCLUSIONES.**

Aurrekariak ikusita, behin-behineko onarpenaren ALDEKO IRIZPENA egiten da, azalpenean aipatutako alderdiak behar bezala zuzendu ondoren.

Txosten hau aurkezten diot Hirigintza Batzordeari, eta egokitzat jotako beste edozein txostenekin egiazta daiteke.

Dena den, Udalbatzak udal-interesetarako komenigarriena dena hartuko du aintzat.

ZUMAIA, 2005EKO AZAROAREN 21A.-LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

Hirigintza Batzordeak Udalbatzari igorri dio Zumaiako Arau Subsidiarioetako 1. sektoreko (Puntanueta II) Plan Partzialaren behin-behineko onarpena eta hori Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenari bidali, behin betiko onar dezan.

Bozketa planteatuta, Udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bertaratutako hamaika kideek aho batez ONARTU DUTE:

LEHENEA: Zumaiako Arau Subsidiarioetako 1. sektoreko (Puntanueta II) Plan Partziala –Pagaegi, Errea eta Loinaz arkitektoek idatzia eta ZUMAIA LANTZEN SAK sustatua– behin-behingo onartzea, udalaren txosten teknikoan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA: espedientea Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenari bidaltzea, behin betiko onar dezan.

**5.- ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 03 HA ODIETA-SAN JOSEKO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIKO AURRETIAZKO LANAK, EGOKIA BADA, ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN 2. ALDAKETA PUNTUALA BIHURTZEA 3.2 EU ODIETA-SAN JOSEKO ETA 5. S.O.KO (GURRUTXAGA-ZULOAGA) HIRIGINTZA-FITXARI DAGOKIONEZ, AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA ONARTUZ; ETA, EGOKIA BADA, ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2. ALDAKETA PUNTUALAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEA 3.2. EU ODIETA-SAN JOSEKO ETA 5. S.O.KO (GURRUTXAGA-ZULOAGA) HIRIGINTZA-FITXARI DAGOKIONEZ**

2005eko uztailaren 21eko Gobernu Batzordearen bileran, Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 03 HA ODIETA-SAN JOSEREN BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIA prestatzeko aurretiazko lanak jendaurrean erakustea onartu zen, arearen ordenazioa zehatz-mehatz azaltzeko BEPB (barne-erreformako plan berezia) tramitatzea aurreikusten duen hirigintza-fitxa garatuz.

BEPBak 03 HA Odieta-San Joseri dagokion hirigintza-fitxaren zehaztapenak betetzen ditu eta Eusebio Gurrutxaga plaza publikoaren lurpeari beste erabilera bat ematen dio: 280 aparkaleku (140 aparkaleku lur-arrasaren azpiko 1. solairuan eta beste 140 2. solairuan).

Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 03 HARI (Odieta) eta 5. SORI (Gurrutxaga Zuloaga) dagokien fitxan ez da lurpeko aparkalekurik aurreikusten.

Hutsune handia dago lurpeko erregimen juridikoari dagokionez: lege-, jurisprudentzia- eta doktrina-hutsune handia.

Legeak eta ordenazio-planak ezarriko dituzte lurpeko jabetzaren eskubideari buruzko mugak.

Zenbait autoreren arabera, hirigintzaren errealitatearen edozein aldaketak ez dakar ezinbestean planeamendu orokorra edo jatorrizkoa berrikustea edo aldatzea; aitzitik, zenbait kasutan –lurpearen ordenazioa horien artean dagoela jotzen dute–, nahikoa da hirigintzako planeamenduko beste tresna batzuk onartzea, garapenekoak edo eratorriak deiturikoak, hain zuzen ere.

Tokiko administrazioan espezializatutako aldizkarien arabera, planeamendu orokorra aldatzea funtsezkoa da, lurpeari buruzko administrazio-jarduerak arautzeko. Horrenbestez, ordenazio-planai dagokie lurra eta lurpea arautzea.

03 HA Odieta-San Jose berrurbanizatzeko planaren barruan, garajeen bideragarritasun ekonomikoaren alternatiba gisa, udala zera ari da aztertzen: garajeak besterentzea, lurra eta lurpea erregistro-finka independente gisa inskribatu ondoren, eta zerbitzu publikotik bereizi ondoren, egokia bada.

Legez araututa ez dagoenez eta plan-mailan antolatuta ez dagoenez, segurtasun juridikoaren mesedetan, ZUMAIA LANTZEN SAKO gerentziak, IRADOKIZUN bat aurkeztu zuen, 2005eko azaroaren 23an Zumaiako Planeamenduko Arau

Subsidiarioetako 03 HA ODIETA-SAN JOSEKO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIKO prestakuntzako aurretiazko lanak aztertu ondoren (Zumaiako Udalak sustatu zuen eta 2005eko abuztuan GAOn argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean jarrita ziren). Horren bidez, zera eskatzen du: Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 03 HA ODIETA-SAN JOSEKO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIKO prestakuntzako aurretiazko lanak, iradokizuna onartuz, ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2. ALDAKETA PUNTUALA bihurtzea, 3.2 EU ODIETA-SAN JOSE eta 5. SOko (Gurrutxaga-Zuloaga) HIRIGINTZA-FITXARI dagokionez.

Azaldutako kontuan hartuzkoen, ZUMAIA LANTZEN SAK aurkeztutako alegazioaren, eta horri buruz egindako txosten teknikoaren arabera,

Bozketa planteatuta, Udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bertaratutako hamaika kideek aho batez ONARTU DUTE:

1.- ZUMAIA LANTZEN SAK aurkeztutako alegazioa aintzat hartuta, Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 03 HA Odieta-San Joseko Barne-erreformako Plan Bereziko prestakuntzako aurretiazko lanak Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2. aldaketa puntuala bihurtzea 3.2 EU Odieta-San Jose eta 5. SOko (Gurrutxaga-Zuloaga) hirigintza-fitxari dagokionez.

2.- Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2. aldaketa puntualaren dokumentua, 3.2 EU Odieta-San Jose eta 5. SOko (Gurrutxaga-Zuloaga) hirigintza-fitxari dagokionez, idazteko irizpide eta helburu orokorrak onartzea, udaleko txosten teknikoan ezarritakoaren arabera.

## **6.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZARI BURUZKO LANKIDETZA-HITZARMENA ZUMAIAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDI TXIT GORENAREN ARTEAN**

Hitzarmen honen oinarri juridikoa uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua da, gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko dena (urriaren 18ko Eusko Legebiltzarreko 5/1996 Legean ezarritakoa garatzen du).

Dekretu horren 4.1.2 eta 3.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera, etxez etxeko laguntza udalen eskumena da, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsona helduen arreta eta zaintza, berriz, foru-aldundiena.

Hitzarmenaren helburua etxez etxeko laguntza-zerbitzua kudeatzeko akordio bat lortzea da; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena izan arren, baliabideen kudeaketa udalak egiten du, urriaren 18ko 5/1996 Legearen, gizarte-zerbitzuei buruzkoaren, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zerbitzuen prezioari buruzko konpromisoa hau da: mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretarako Gipuzkoako Foru Aldundiak etxez etxeko laguntza-zerbitzuko orduko ordaindutako gehieneko lan-tarifa 16 €ordu-koa izango da, eta, igandetan eta jaiegunetan, berriz, 19,2 €ordu-koa. Horren eragina 2005eko uztailaren 1etik aurrerakoa izango da.



Ekonomikoki, akordioa gure mesederako da, udalak 2005erako ezarritako zerbitzuaren prezioa 14,66 €ordu-koa baita.

Hitzarmena abenduaren bata baino lehen onartu behar da, eta bederlatzi hilabeteko epean, zerbitzuaren erregelamendua onartu beharko da.

Azken finean, zerbitzua homogeneo bihurtzeko, EUDELen eta foru-aldundien artean egindako hitzarmena onartzea proposatzen da.

Bozketa planteatuta, Udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bertaratutako hamaika kideek aho batez ONARTU DUTE:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaiako Udalaren arteko Hitzarmena onartzea, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako etxez etxeko laguntza-zerbitzua kudeatzea gauzatzeko.

## **7.-GALDE-ESKARIAK.-**

Alkate-Lehendakariak batzordekideren batek eskakizunik edo galderarik egin nahi duen galdetu du.

Lide Amilibia PNVko zinegotziak gogoratu du Paola udal aldizkarirako idatziak aurkezteko epea abenduaren batean amaitzen dela.

Beste gairik izan gabe, gaueko hamarretan, Alkateak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA